

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

GEOLOGIA

India azkar higitzen da

ORAIN 50 MILIOI URTE Indiako plaka kontinentalak Asiakoarekin talka egin zuen eta horren ondorioz Himalaiako mendikatea sortu zen. Plaka kontinentalak higitzen direla ezaguna da, baina Indiakoak duen abiadura Formula 1-ekoa dela esan daiteke. Urtero 20 zentimetro mugitzen da, eta gainerako plaka kontinentalek 20 edo 40 milimetro baino ez dute egiten.

Postdameko (Alemania) Lurreko Zientzien Laborategi Nazionalan, Rainer Kinden lan taldeak hain abiadura handiaren arrazoia topatu duela adierazi berri du. Antza, Indiako plaka kontinentalen sakoneran dago gakoa: Indiako plakarena 100 kilometrokoa da, eta gainerakoena 180 eta 200 kilometro artekoa.

Orain dela 140 milioi urte kontinente guztiak elkarturik zeuden, Gondwana erraldoia osatuz. Banatzen hasi zirenean plaka kontinental bakoitzak bere bidea hartu zuen, eta orduz geroztik Indiakoa izan da gehien higitu dena. Bistan da zergatia.



Osasuna

JABIER AGIRRE

Alzheimer kasuak milioitik gora 2020an



Alzheimerra duela esan du Pasqual Maragallek.

ALZHEIMER GAITZAREN intzidentzia bikoiztu egingo da gure artean 2020. urterako. Gaixotasun hori sarritan nahasten da zahartzaroko demenziarekin eta zaintzaileei ere gogor erasaten die —beraiengan baitago, zoritxarrez, gaixoen ardura nagusia—.

Ehun urte bete dira Alois Alzheimer neurologoak bere izenez eza gutzen dugun gaixotasuna ezagutzera eman zuenetik. Gaur egungo estimazioen arabera, 65 urtetik gorako biztanleen %5-7 dira gaitz horrek jota daudenak (650.000 pertsona inguru Espainiako estatuan), eta 85 urtetik gorako artean, hamarretik lau. "Alzheimerra da bizi-itxaropena handitzeagatik ordaindu beharra daukagun prezioetako bat", dio Madrilgo San Carlos ospitaleko zuzendari Juan José López Ibor psikiatrak.

Alzheimerrak jota dauden pertsonen %85-90 hurbileko senideekin bizi dira, eta pertsona horiek dira gaixoak zain-

zteak dakarren zama fisikoa, psikologikoa eta baita ekonomikoa ere aurrera daramatenak. Familiartekoei laguntzeko, eta zainketa lana samurragoa egiteko, laguntza taldeak eratu dira azken urteotan. Erasandakoen familiartekoentzat, dena den, kontzientziarazioa da gakoa. Oso garrantzitsua da medikuak gaixoari eta bere inguruari egia esatea. "Garuneko gaixotasuna da, eta tratamenduak ez du sendatzen, baina lasaitasun giroa ekartzen du. Familiartekoak pertsona bera izaten jarraitzen du, noski, baina pixkanaka bere nortasuna ere aldatzen hasiko da, gaixoaren arrimuan", dio Alzheimer Fundazioaren idazkaria den Jacques Selmés adituak.

Duela hamar urte gaitz hau ia ezezaguna zen gizartearentzat, eta kontsultak egiten zirenerako gaixoaren adimena oso hondatuta egoten zen. Espezialistek kalkulatzeko dutenez, hamarren bat hilabete pasatzen dira aurreneko sintomak agertu eta medikuari bisita egin artean, eta beste hamar kontsulta horren eta diagnostikoa ezartzen den unearen artean. Ia oharkabean joaten diren hilabete luze horiek gutxitzea, diagnostikoa lehenbailehen finkatzea, eta tratamendua martxan jartzea lortuko bagenu, gauzak beste modu batera joango lirateke denontzat, bai gaixoarentzat eta baita zaintzaileentzat ere.

ANTROPOLOGIA

Uste baino lehenago hasi ginen gizakiok itsasoan murgiltzen

NAZIOARTEKO antropologo talde baten arabera, orain 160.000 urteko hominidoak egungo gizakiaren ohiturak garatzen hasi zirenean, Afrika hegoaldean eta itsasertzean bizi ziren.

Hegoafrikan dagoen Pinnacle Point inguruan Indiar Ozeanoaren bista izugarri ederra dago; orain 164.000 urte han bizi ziren gizakiak egun ditugun ohituren aitzindaritzat jotzen dira. Aipatu leizean molusku oskolak, erabilitako harriak eta tresnak topatu dira, eta horien azterketatik orduko gizakia itsasotik ere bizi izan zela ebatzi da.

Orain arte gizakiaren eta itsasoaren arteko harremana 100.000 urtekoa zela uste zen, baina aipatu aurkikuntzak 60.000 urtean aurreratu du harreman horren historiaren hasiera. Topatutako tresnak geziak eta makilak dira nagusiki; horien erabilera orain 40.000 urte hasi zela uste bazen ere, egindako aurkikuntzen arabera 120.000 urte lehenago hasi ziren erabiltzen.

Gainera, hematita izeneko pigmentuaren erabilera ere frogatu da. Pigmentu horrek gizaki modernoaren ohiturekin erlazioa du, hainbat erriturekiko lotura baitauka, baina zaila izan da orain arte errituon hasiera datak ematea. ■

Orain 160.000 urte inguru Pinnacle Point-en (Hegoafrika) bizi ziren hominidoek bazekiten makilak erabiltzen. Leku berean, gaur egungo gizakiek golfetan jokatzeko darabilte makila.



JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Berezko beroa

MANDARINEN ETA BESTE GARRAZKIEN antzerako eragina du, agidanean, baratxuriak (*Allium sativum*) osasunean. Garrazkitik bat ere ez, baina garraztzat du askok baratxuria, pittin bat min edo beroa izateaz gain ahoko zuloan uzten duen usain estalaktita ez baita nolanahikoa. Horixe izan da baratxuria hortzez jo beharrean zeharka begiratzuz arbuizatzeko arrazoi nagusia. Gordinik janez gero latz garbitu, nobedadeak ekar ditzaketen onddo eta bakterioak akabatu eta, adi, berotu egiten omen du, mariberotu edo martinberotu, alegia.

Beroaldia zertzer ahoa itxita ezin azaldu, ordea, inorengana... Argentinarrak berotu diren arte. AEBtako Nekazaritza Departamentuko ARS Ikerketarako Agen-



Allium sativum. Baratxuria, lagun artean.

tzia entzutetsuarekin bat egin eta baratxuri gordinaren eta berotuaren arteko aldea ikertzeari ekin diote. Beraien ustez baratxuriaren mesederik eztiaren bihotzak jasotzen ditu: sufredun tiosulfinoak

arteria presioa apaldu eta odoleko plaketa multzoak desegiten dituzte, nonbait. Munduaren erdiak baino gehiagok jan aurretik baratxuria erre edo egosi egiten duenez, horrek bere sendagaitasunean duen ondorioa aztertu nahi izan zuten. Baratxuri begiak oso-osorik eta zanpatuta egosi, labean erre eta mikrouhin labean eginda parez pare jarri zituzten. Ondorioa haxe, zanpatu eta juxtu antzera erre edo egositakoak ederki eusten dio bere sendatzeko gaitasunari. Salbuespen argi eta garbi bat ere azaldu dute: mikrouhin labean egindakoek beren onura guztiak galtzen dituzte. Eta ez dute nonahi argitara eman, *Journal of Agricultural and Food Chemistry* Nekazaritza eta Elikagaien Kimika aldizkarian baizik.

Han, Argentinan, politikoen estiloan aberastu denaz "*tiene más propiedades que el ajo*" esaten dute, landarearen berezko gaitasunak eta lapurrak bereganatutako jabegoak adierazteko erabiltzen den hitz berarekin jokatuaz.

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Soluzioak Zerbitzuak

Erremintak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industria 1, 20160 Lesaito-Olea
Tel. 943.37.18.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA